

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 1,7 milioi euro jarriko ditu enpresen produktibitatea hobetzeko

Enpresa txikien proiektuak sarituko dituzte, %40 diruz lagunduta

Miércoles, 20 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren bitartez, enpresen lehiatzeko gaitasuna sustatzeko laguntza deialdi bat egin du. Batik bat Nafarroako ETEei lagunduko diete eta aurrekontua 1.750.000 eurokoa da.

Laguntzak dira, hain zuzen, Nafarroan kokatuta dauden eta produktibitatea edo hazkundera hobetzeko proiektuak egiten dituzten enpresentzat. Proiektu horien helburuak izan behar dute enpresen arazo edo gabezia nagusiak konpontzea eta lehiatzeko gaitasuna argi eta garbi, berehala eta modu eramangarriraino gehitzea.

Diru-laguntzen zenbatekoak izango dira erakundeen tamainaren arabera, eta enpresa txikien proiektuak lehenetsiko dituzte; izan ere, enpresa txiki horien proiektuen %40 lagunduko dute diruz, gehienez.

Enpresa ertain eta handiek proiektuaren %30 eta %20 ordaintzeko diru-laguntzak jasoko dituzte, hurrenez hurren. Portzentaje horri %10 gehitzeko aukera dago.

Proiektuak, diru-laguntzak jasotzeko, helburu hauek bete behar dituzte:

-
Produktibitatea hobetzea, produktuak, zerbitzuak, prozesuak edo antolaketa hobetzeko proiektuen bitartez, adibidez: "lean manufacturing", TPS, "just in time", prozesuen ingeniarietza berriz antolatzea, sei sigma, TPM, minifabrikak, ekodiseinua, e.a.

-
Enpresa haztea, ekoizteko ahalmena handituz edota produktu edo zerbitzu berriak eskainiz. Ez dituzte diruz lagunduko planak, antolaketa, produktuak, ekoizpen ildo eta prozesuak eta martxan dauden zerbitzuak aldatzeko aldizkako proiektuak eta gainerako eragiketa arruntak.

-
Halaber, enpresak zehaztutako hobekuntza adierazleak jarri behar dituzte, aurreikusitako helburuen arabera. Adierazletzat hartuko dira jarritako



Kontserba fabrika.

helburuak zenbateraino lortu diren adierazten duten datuak, produktu, zerbitzu, prozesu edo antolaketari buruzko datuak.

Diruz lagunduko dira proiektuaren kanpoko gastuak (aholkularitza, ingeniaritza eta laguntza, inbertsio material eta ez materialak eta beste gastu batzuk) eta proiektuari zuzenean lotutako langileen soldata gordinari dagokion barne gastuaren parte (gehienez 120.000 euro), betiere gastu hori 2011ko urtarrilaren 1etik 31ra egikaritzen bada.

Eskariak aurkezteko eguna maiatzaren 20a da. Aurkeztu behar dira, ahal izanez gero, Internet bidez, Nafarroako gobernuaren Atariko zerbitzuen katalogoko fitxa baliatuz (www.navarra.es).

Eskariak aurkeztu daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura